



Ingurugiroa eta enpresa: lehiakortasuna jokoan

Pili Kaltzada*

Gutxi kostatuta eta asko balio. Ingurugiroari kalterik egiten ez dioten iharduerak ezartzen laguntzea, norberatik hasi eta azken muturreraino. Oraingo honetan, enpresa eta enpresariaren eskutan utziko da lekukoa, produkzioa eta ingurugiroarekiko begirunea lotu dezaten bultzatuz. IHOBE Sozietate Publikoak antolatutako, Bilboko Injineru Eskolan, Martxoaren 23an.

Empresa-bideragarritasuna eta ingurugiro-gestioa elkarren osagarri direla gero eta nabarmenago azaltzen ari da. Euskal Herriko zenbait enpresak behar honetaz oharturik, ingurugiroari kalterik egiten ez dioten produkzio- eta zerbitzu-sistemak atondu dituzte jadanik, mundu osoan nagusitzen ari den joera berrira egokituz. Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendua, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak antolatu dituen ihardunaldiak filosofia honetaz ohartarazteko eta produkzioarako jorratzen ari diren sistema berriak ezagutzeko aukera ezin hobea izango da. IHOBE Sozietate Publikoaren bidez gauzatu den egitasmoak joera eta filosofi aldaketa horren ispilu izatea nahi omen du eta horretarako enpresa eta ingurugiro-zerbitzutako profesionalak Bilbora bertaratu dira Martxoaren 23an. Enpresari eta zerbitzu-enpresetako kudeatzaileei, zuzendari teknikoei, kalitate- eta ingurugiro-arduradunei eta oro har, ingurugiroarekiko kezkarik duen edonori interesgarri gertatuko zaizkie Bilboko Injineru Eskolan aztertuko dituzten gaiak.

Enpresa eta industri iharduerarekin lotutako aztergaiak gain, Eusko Jaurlaritzaren "2000 Globala. Teknologia eta Produktu Garbien Ekintza Plana" delakoaren hildo nagusiak ihardunaldietan bertan ezagutaraziko dira. Ingurugiroarekiko begiruneak momentuko moda baino zerbait gehiago beharko du euskal enpresak aurrera egin dezaten. Gaur egun, mundu osoan ezartzen ari den produkzio-eredu berriak orain arte kontutan hartu ez den aldabari berria ezarrara-

zi du. Produzitzea, izan ere, lehen-gaien tratamendu hutsa baino zerbait gehiago dela ohartzen hasiak dira. Nola produzitzen den eta ekoizpenak zein kostu sorraraziko duen aztertzea gero eta aldagai arruntago bilakatzen ari da enpresatan. Joera hau iritsi berria da gure artera. Oraingo honetan ere, kanpotik etorri da ziztada. Atzerriko inbertsiogileek harreman komertzialak ezarri baino lehen, enpresa edo sektorearen ingurugiro-kudeaketaren egoera aztertzen dute, horren arabera onartu edo atzera bota daitezkeelarik inbertsio asko eta asko. Honek isladatzen duenez, lehiakortasun-kontzeptua ez da ezustean iritsi gure artera, produkzioaren kostu eramangarria eta enpresa-bideragarritasuna uztartuz baizik. Bistan denez, euskal enpresa askoren etorkizuna erronka berriei aurre egiteko gaitasuna izatean eta garai berrietara egokitzen asmatzean datza. Prozesuaren norabidea Eusko Jaurlaritzaren "2000 Globala. Teknologia eta Produktu Garbien Ekintza Plana" egitasmoak zehaztuko du hurrengo urteotan. Gobernu autonomikoaren ingurugiro-estrategia isladatzeaz gain, euskal enpresatan teknologia eta jokamolde berritzaile eta garbiak sartzeko eta sustatzeko irizpideak finkatzea dira Plan berriaren helburu nagusiak.



* **ZETIAZ-Elhuyar**



Gai nagusiak

- ☛ "Produkzio garbiaren errentagarritasuna enpresa txiki eta ertainetan"
Lisa Brown, US-EPA erakundeko Berritze Teknologikoaren Proiektu zuzendaria.
- ☛ "Teknologia garbiak erabiltzeko eta dinamizatzeko egitura. Alemaniako ABAG"
Bernhard Scheible, ABAG (Teknologia Garbien Agentzia) erakundeko zuzendari orokorra.
- ☛ "Gernika-Urdaibaiko enpresetako esperientzia. Hondakinak minimizatzeke plan aitzindaria martxan"

Informazio gehiagorako:
IHOBE, Ihardunaldien Idazkaritza.
Tfn. zebk: 94.423.10.77